



Karmele  
Igartua  
Bengoa

*Bidegile eta sortzaile.  
Halabeharrez eta intentzio osoz*

(1959-2010)

BIDeGILEAK

Egilea:

**Tere Irastortza Garmendia**



# KARMELE IGARTUA BENGOA

(1959-2010)

**K**armele Igartua Bengoa Bergaran jaio zen (1959-07-16). Aita Daniel bergararra zuen, Oñatiko Araotz auzoko bailarako jatorrikoa, eta ama Montse aretxabaletarra, jatorriz Bedoña auzokoa. Karmele Igartua lau anai-arreben artean bigarrena, eta neska bakarra egokitu zen.

Langile familian jaioa, lan-kontuagatik Aretxabaletara etorri zen familia. Aitak lehenago Bergarako Labe Garaietan ziharduen, baina gero Aretxabaletara aldatu ziren kooperatiba-mugimendua indartzen ari zenean. Arrasateko ULGOR kooperatiban hasi zen aurrena eta gero Aretxabaletako COPRECIIn. Artean bi anai-arreba ziren, Karmele urte betekoa eta

Jabier, anaia zaharrena bi urtekoa. Gerora Joseba eta Josu jaio ziren.

Harez gerokoan, esan daiteke, aretxabaldar peto-petoa izan zela, eta bertan ikasi, familia osatu, lan egin eta irakasle lan eta ahaleginetan herrigintzan eta euskalgintzan eman zuela bizitza.

## IKASLE NON ETA EUSKARAZ NOLA

Karmelek Aretxabaletako Santa Rita monjetan ikasi zuen zazpi urtera bitartean. Handik, anaia Jabier eta bera Almen-era pasatu ziren, eta han amaitu zituen Batxilerra eta UBI ere. Koopera-



Karmele Bergaran 1960an, jaioterrian, gurasoekin eta izeba Juanitarekin



Aita-amak eta lau neba-arrebak



Bergaran ama, Jose Antonio osaba, Karmele eta Jabier anaia



Karmele umetan, 18 hilabete inguru zituela

tiben ekimenez sortutako ikastetxea zen. Euskaltzaletasun eta abertzaletasuna bul-tatzegatik hautatu zuen Igartua-Bengoia familiak Almen. Euskarazko eredurik ez baitzen artean, ikasle zaharrenak beraiek bihurtu ohi ziren euskal ereduaren eragile, Karmele Igartua tarteko, adinez egokitu zitzaizaien.

Hainbat irakasleren lana ere garrantzizkoa izan zen Karmeleren heziketan: Joseba Ariznabarreta, filosofiako irakaslea; Klara Badiola, literaturakoa; edota Arantxa Arin, soinketakoa. Klara Badiolarekin, esate batera, sortu zitzaion literatur harra Karmeleri. Eta hala, eskolarako egin beharreko



Aretxabaletan bizi ziren auzoan, 1969 inguruan. Erdian anaia Josu. Ezkerretik lehena, Karmele.



Gurasoak, neba-arrebak eta Bengoatar batzuk, 1965 inguruan

lan bat burutzeko asmoz joan zen Karmele Imanol Aginagalde ikaskidearekin batera Oiartzuna, Xabier Lete eta Lurdes Iriondori elkarrizketa bat egitera.



Neba-arrebak mendian



Aretxabaleta aldean paseoa Montse, Karmeleren ama, lehengusu eta lagun batekin



Mendizalea izan zen eta familia-giroan bizi izan zuen eskual mendiak eta basoak ezagutzeko pasioa. 1973ko argazkia

Magisteritza, berriz, Eskoriatzako irakasle-eskolan egin zuen eta frantsesa jorratzea izan zen bere aukera. Ondo moldatzen zen frantsesez, eta horrek izan zuen garrantzia bere literatur irakurketetan ere. Ordurako, euskara hutsean ikasi ahal izan zuen. Bertako irakasleen artean Iñaki Mendigurenen eragina gogoratzen zuen.

Ikasteaz batera, Alecop estudianteentzako kooperatiban egiten zuen lan, orduko hainbat langileren seme-alabek bezala. Lehen ere, Batxilergoan eta udan lan egin ohi zuen, adibidez, Aretxabaletako Copreci industria-kooperatiban telefonista moduan.



Eskoriatzako Almen ikastetxeko lagunekin batxilergoa egiten ari zirela, 1976

Era horretan jardun arren, oso ondo atera zituen ikasketak.

Lan eginez ikastea ez zen hain harritzekoa garai hartan, goi-mailako ikasketak egitea erabakitzeak lan-mundurako sarrera

Lagun artean  
1976 aldera.  
Belauniko,  
ezkerretik  
lehen, Karmele



Bordari, Yurre,  
Gandiaga eta  
Aresti idazleek  
Loramendi  
olerkariari  
1961ean egindako  
omenaldian

atzeratzea suposatzen baitzuen, alde bate-  
tik, eta, bestetik, ikasketak ordaintzea. Bes-  
te arrazoi batzuen artean, horregatik ere  
ez zen ohikoa garai hartan unibertsitatera  
igarotzea. Aurren-aurrena norberak auke-  
ratu egin behar zuen bidea, eta ondoren,  
urratu.

## EUSKAL KULTURAREN ALDE, GIZARTE MUGIMENDUETAN HEZIA

Familia abertzalean hezia, euskal kultura  
suspertzen zen giroetako partaide izan zen  
umetatik Karmele. Eta laster, bere ahos-  
kera eta hizketarako patxadak ezagun  
egin zuen Aretxabaletan. Hala, Juan Ara-  
na *Loramendiren* omenez Aretxabaletan  
egindako jaialdi batean, Jabier anaia eta

berak errezipatu zituzten olerkari honen  
poesiak. Karmelek irakurritakoa, aipaga-  
rria da, «Enada»rena izan zen. Loramendi,  
gainera, familiakoa zuten ama Montseren  
aldetik, Bedoñakoa.

Harez gerokoan hainbat jaialditako aur-  
kezle ere izan zen. Aurren-aurrenekoa,  
ziurrenera, Aretxabaletan egindako  
txistulari-alarde batean. Gero ere Are-  
txabaletan antolatu ziren ekinaldi asko-  
tan. Aipagarrienetako bat Loiola Irratiaren  
alde egindakoa. Loiolako Herri Irratiaren  
Itsumendiko emisorean lehergailu indar-  
tsu bat jarri zuen 1977an Batallón Vasco  
Español-ak eta herrietan burututako jaial-  
diei esker, berriz, antena hura altxatzeko  
modua egin zen. Artean 18 urte betetzeke  
zeuzkan Karmelek.



Demetrio Iriarte txistulari eta musikagile ezagunarekin ikasi zuen Karmelek txistua jotzen. Argazkian Aretxabaletako txistulari-alardea 1974 inguruan

Garai hartan, eskolaz kanpo eutsi zitzaion euskal kulturari. Musika, dantza-taldeak, mendizaletasunaren inguruan sortzen zen giroak indartzen zuen euskal kulturarekiko grina.

Musikarako dohain bereziak zituen. Karmeleren gaztetako ahaleginetako bat musika izan zen. Kantatzeaz gain, txistua ere jotzen zuen. Almen ikastetxeko Eguberrietako kantu-jaialdian atera zuen lehen saria eta harez gero berak bere gitarrarekin kantuan egiten zuen. Etxekoen arabera, lagun artean edo ikasiko zuen.

Oso belarri onekoa izan, eta soinua ikasten ere aritu zen, semearekin batera. Familian ere kanturako eta musikarako zaletasun handia zegoenez, beti kantu-giroan jardun izan zuen.

Espiritu sortzailekoa zen eta hainbat kantu asmatu eta abestu ere egin zuen, bere esperientzia eta bizipenen erakusgarri. Baina behin 18 urte ezkerotzik jendaurrean kantatzeari utzi zion.

Erdal musikariak, musika instrumentala eta klasikoa alde batera utzi gabe, Karmelek Etxamendi eta Larralde, Lete, edo Lurdes Iriondoren kantutegia ia osorik ze kiela esan daiteke. Oso gustuko zituen eta hauetako hainbat kanta oso kuttun, «Izarrren hautsa» edo «Andereño», adibidez.

Izan ere, andereño egiteak eta eskola guztietara euskal adarrak hedatzeak eman zien euskal emakume askori gizartean eragiteko bide aparta.



Gaztetan Elisabet lehengusuarekin kantuan. Karmele, eskuinean



# Ama gazte bat, andereño Aretxabaletan

Kurtzebarri Eskolako bilera batean, ezkerrean

**O**so ezaguna zen Karmele Igartua jaioterrian eta ikasketak amaitu orduko, Udaletik deitu zioten, eta 1980az geoztik Kurtzebarri Eskolan aritu zen euskal eredia sortzen eta lantzen.


Horretarako, aurrena, haur-hezkuntzako ikasle guztiak euskalduntzeko helburuarekin 1983-03-18an Aretxabaletako Udalak, Kurtzebarri Eskolak eta Loramendi Ikastolak «Aretxabaletako Eskolaurrea» adostu zuten. Tartean ibili zen Karmele eta 1993ra bitartean Ikastolak eta eskola publikoak elkarrekin pedagogikoa osatu zuten, bakoitzak bere izate juridikoa mantenduz.

Esperientzia haren amaierak zerikusia izan zuen Euskal Eskola Publikoaren Legea-

rekin. Eta 1994an Karmele Igartuak ere «Euskal Eskola Publikoa dela eta» Aretxabaletan egindako hausnarketan parte hartu zuen. Bertatik «Aretxabaletako Eskolaurrea» egitasmoan bezala, Kurtzebarriko eredia defendatu zuen, hark bermatzen zituelako D eredia edo Murgiltzearen aldeko apustua, %99an irakasleria euskalduna eta iraunkorra, herriko sektore guztien integrazioa, doakotasuna eta metodo berritzailea. Adibide hori zabaldu eta eredu bihurtzea zen helburua.

Udal hauteskundeetan zinegotzietarako hautagai izan zen 1991 eta 1995eko bozaldietan, eta orduko HBko proposamenak, bere ustez, izan behar zuen «Lege berri baten alde borrokatzea (lortu arte)».





Hezkuntza-irakaskuntzarako eskema Aretxabaletan, Karmelek moldatua

Karmele Igartuak antolatzaile aparta izanik, ikasketa-buru lanak ere egin zituen, txandan-txandan, gutxienez hamabi urtez. Azken kurtsioetan batez ere irakasleen eta ikas proiektuen arteko koordinatze lanen ardura izan zuen. Esate baterako, 2006-2007 ikasturtean hasita, Kurtzebarrin gauzatzen ari zen ahozkotasanaren inguruko egitasmo bateratua. Proiektu hau 2009an aurkeztu zuen Goieskolak antolatuta, «Hizkuntzaren Trataera Bateratua» hizpide hartuta izan ziren jardunaldietan.

Urte berean Eskoriatzako irakasle eskolan bere irakas esperientzia azaldu zuen.

Literaturarekin lotutako jarduerak ere antolatu zituen Kurtzebarrin: Literatur Astea, Abelino Barriola deklamazio-lehiaketarako prestaketak etab., hainbat sari lortuz. Horren harira bidaia batzuk ere egin zituen: Ipar Euskal Herrira 1992an, Israelera 1996an, Esloveniara 2002an, Kanadara 2006an.

Literatur astearen inguruan, beste batzuen lanak ez ezik, bere antzezlanak ere taularatu zituen ikasle, irakasle nahiz guraso taldeekin.

Kurtzebarri Eskolako partaide bezala M.U.ko irakasleekin eskola-materialen sorkuntzan parte hartu zuen Rosa Urreta,



Karmele Ekaitzekin

Eli Arenaza, Resu Abasolo, Guren Gonzalez eta Lourdes Etxeberriarekin batera, gero Anaia-Haritza editorialak argitaratutako *Hizkuntza* eta *Ingurunea* lantzeko ikasbideak, hain justu. Horretarako, Matilde Sainz eta Marian Bilbatua, Eskoriatzako irakasle-eskolako adituak, izan zituzten proiektu-buru. Rosa Urreta lankidearen hitzetan, «Murgiltze eredia deitutakoa, ume erdaldunak euskalduntzeko materiala, integrazio-lana, proiektu erakargarriak... benetako euskalduntze prozesuaren irizpi-deen ezarpena; taldekatzeak nola...» Karmele ibili zuten gidari-lanetan.

## EZ ZEN PEDAGOGOIA... ETA IKASI NAHI ZUELAKO IZAN ZEN HAIN IRAKASLE ONA

Inon bada, Euskal Herrian sentitu izan da pedagogia berritzaile baten beharra. Sistema pedagogiko horren oinarriak ez dira teoria baten dedukzio hutsetik sortu, bizi-pen eta izate-premietatik baizik. Karmelek hain zuen errotua andereño izatea, gelako lana eta ikasleen jarraipena, non ezkondu orduko ere beretzat naturala zena egin baitzuen: eztei-bidaia Donostiara egin, besteak beste, bera Adarrak eratutako pedagogia-ikastaroetan matrikulatu zelako uda hartan.



Raimundo senargaiarekin 1979an

Eta hala, 21 urterekin lanean hasi bazen, Karmele 22 urte egitera zihoan Raimundo Oianguren eskoriatzarrarekin 1981ean ezkondu zenean, 24 urte Ekaitz semea izan zutenean, 27 urte Garazi alaba jaio zitzaienean. Errekabarren kalean bizi izan zen. Bere amatasuna izan du Karmele Igartua Bengoak bere bizipenen artean beren-berenezkoetakoena.

Berak esaten zuen bezala *halabeharrez eta intentzio osoz*: seme-alaben hezkuntza, ama bati ez ezik andereño bati zegokion senaz.



Aita-amak alabarekin



Familia osoa Aretxabaletan, 2000. urteko San Migeletan

Amatasunak bezala alaba izateak eragin ezinbestekoa izan dute Karmele Igartuaren baitan, hala pentsaeran nola jokaeran, hala literatur sorkuntzan, pedagogian pentsatzean nola bere seme-alabentzat eta seme-alabekin sortu nahi zuen mundualdian. Honetan ere, denean behar zuen *zer* eta *zer* horren *zertarakoa* eta *nolakoa* galderei erantzun beharra bizi-bizi zuen.

## EUSKAL HERRIRAKO, HERRIAN ERAGIN

Trantsizioa, amnistia, ekologia, aberri egunak: politikoki ezker abertzalean lerratu zen Karmele Igartua; hala ere, inolaz bere iritziei uko egin gabe. Eta debate politikoetan, hezkuntzakoetan parte hartzeaz gain, batez



Mendian 1980an

ere, bere eta gertukoek ekimenez sortutako ekintzetan nabarmentzen da bere nortasuna.

Familian eta herrian bizi izandakoagatik euskaldun, euskaltzale eta abertzale zenez, ez zuen familietan eta herrian eragin gabe euskal nortasuna zabaltzerik ikusten.

Eta hala, ez da harritzekoa, Aretxabaletan bertan ziren kultur elkarteetan buru-belarri lanean aritzea: Tril emakume taldearekin San Migelak eta herriko festak berrantolatzen, euskal dantzak errekuperatzen, Loramendi elkarteetan, euskara eta euskal kultura eta gazte-mailan motibazioa lantzen, Urbaltz elkarteetan politika eztabaietan parte hartzen, eta beti ikasleekin, herritarrekin eta irakasleekin, lagun-giroan...

Denean ikusi izan du Karmele Igartua Bengoak lan egin beharra, denetatik nola eragin, eta Aretxabaletako Udalak Herriko Alaba Kuttun izendatu zuen.



# Poeta heldu bat Euskal Herrikoa

Karmele Kurtzebarri eskolako abestaldea zuzentzen

## ANDEREÑO BAT ESKOLA ANTZERKIAREN ETA AHOZKOTASUNAREN ERAGILE

2000tik aurrera, Kurtzebarri Eskolako Literatura Asteko antzerki-emanaldirako lau antzezlan idatzi eta bosgarren bat egokitu zuen. Hauek dira izenburuak eta datak: *Iruzurra* (irakasleek ere antzeztutakoa, 2001ean eta 2006an), *Patakon bandoleroa* (2002), *Gazi, gozo, gezamin* (2004), *Muruko sorginak eta herensugea* (2005), eta, azkenik, Mariasun Landaren *Julieta, Romeo eta saguak* narrazioaren antzerkirako egoki-

tzapena. Lan guztiok [www.idazten.com](http://www.idazten.com) orrian argitaratuta daude.

Bakoitzak bere gaia baldin badu ere, lanok badituzte komunean hainbat ezaugarri:

- Euskal Herrian kokatuak daude eta Aretxabaletarekin loturaren bat eginez sortuak dira.
- Euskal historiarekin eta kulturarekin zehrikusiren bat dute. Baten Patakon bandoleroaren garaira jotzen du, hurrengoan mitologiara, Arrasateko herensugea dela medio, edota Arrasateko erreketetara. Baita *Iruzurra* izeneko antzezlanean ere, Eneko Aritza, Blanka Artoiskoa, Kata-



Kultur Astea eskolan

lina Erausokoa, Iparragirrereren estatuak aitzakiatzat hartuta.

- Aretxabaletako euskarak, bizkaierak, eta batuak zeregin ezberdina dute antzerkietan.
- Publikoaren parte-hartzea bilatzen du, publikoagan eragiteko. Gehienetan, gainera, aita-amengandik eta euskal tradiziotik ikasitako kantu, hitz-jokoak argitara eman nahi ditu, gerora ere erabil ditzaten, ez bakarrik antzezle arituz direnek, baita herritarrek ere.
- Darabiltzan gaiak unibertsaltzat ditugu, eta horregatixe ere badira euskaldunak. Patakon bandoleroa dugu Robin Hood euskalduna, Oneka Butroikoa eta Jaun Matxin Olasokoa gure Romeo eta Julieta,

geure sorginak Shakespearerenak bezain zirikatzaile eta jostariak, herensugearen aurka altxatutako herria geurea, Haritz eta Leireren arteko amodioa goratuko duena geurea, etab.

Baina antzerki guztietan bada konflikto bat. Amodiozko istorioek garaituko dute gatazka hori, itxurakeriak gailendu eta garaian garaiko kodeak gaindituz.

## BERGARAKO IDAZLE ESKOLAN, IKASLE ETA KOORDINATZAILE

Karmelek idatzia bere soslai batean: «Irakasle lanak aurretik nekarren idatz zaletasuna areagotu egin duela esango nuke, eskolan hasi bainintzen antzezlanak sortzen».

2005-2006an eman zuen Karmele Igar-tuak Bergarako Idazle Eskolako gradu-ondokoan izena. Lehen ikasturte amaierako Idazle Eskolako bekaren irabazle izan zen literatur sailean, *Galdu arte* izeneko gutun-sortaz osatutako narrazio batekin. Narrazio hartan Euskal Herriko egoera politikoan nahasten zen amodiozko eta desamodiozko historia harilkatzen zen.

Gradu-ondokoa amaitu ondoren, hainbat eta hainbat egitasmo mamitu zen bere lanari esker. 2008tik aurrera Idazle Eskolako koordinatzaile izan zen, eta bere koordinaziopean garatu eta indartu ziren [www.idazten.com](http://www.idazten.com) webgunea, ikasle ohien arteko zuzenketa mintegiak, hainbat komunikabidetako idazketa-sokak (*Nabarra, Mugalari, Administrazioa Euskaraz...*), edota Idazle Eskola eta beste hainbat literatur elkarterekin harremanari segida eman izana (Hatsa elkarte, Aspaldiku...).

Lan horien artean, bereziki azpimarratu beharrekoak dira Ilunabar Literarioak eta *Luma berrien eleak* aldizkariko lanen koordinazioa. Bere ohiko partaidetza pertsonalaz gain, Itziar Gomez eta Karmele Igartuaren lanari eta intuizioei asko zor die Ilunabar Literario hauen egiturak. Aretxabaletan egin



Bergarako Idazle Eskolako kideak Donostiako K. Mixelena Kulturunean euren literatur aldizkaria aurkezten



*Luma berrien eleak*, Bergarako Idazle Eskolako aldizkaria. Karmelari eskainitako ale berezia, 2011

direnak izan dira jendetsuenak, eta Karmele hil ostean ere, bere omenez, bost aldiz plazaratu da *Eta orain badakit Itsaso kontra bat* izeneko emanaldia.

*Luma berrien eleak* aldizkarian, beste alde batetik, ikasle zenetik etengabe parte hartu zuen idazten eta baita, gero, ikasleen koordinazio lanetan ere. Aldizkari honek, bera hil eta gero, Karmele Igartuari eskaini zion lehen alea, eta bertan, Bergarako UNEDen 2010eko azaroan egindako omenaldiko testuak argitaratu ziren.

Idazle Eskolan izan zuen jardunaz gain, beste elkarte batzuek gonbidatuta, lite-

ratur giroan ere parte-hartze handia izan zuen. Hara nola, bi urtez, Nafarroako Poesia kongresuetan, Iruñeko Ateneoak eratutakoetan, Eako poesia egunetatik ere hainbat aldiz deitu zioten, osasun kontuak medio sekula joaterik izan ez zuen arren. Aretxabaletako Loramendik 2010ean bere elkarte berritzerako egindako aurkezpenean, Larrabetzuko *Literaturia* saioretan, edota Durangon *Pentsamenduaren Poesiak* antolatuetan. Irakurle aparta zen eta berak irakurritz ondo ezagutarazi zuen bere poesia. Eta berak irakurritako testuak entzun litezke [www.idazten.com](http://www.idazten.com) orrian eta baita Pako Aizpitartek egindako hainbat grabaketatan ere.

Eragin hori ere nabarmena izan da, eta ez da ahaztu behar zenbat lekutatik eskaini dioten omenaldia hil ostean: Bergarako Idazle Eskolak, Hata elkarteak, Aspaldiku elkarteak, Euskal Idazleen Elkarteak, *Eako poesia egunak*...

## LIBURUAK ARGITARATU AURRETIK EMANDAKO URRATS BATZUK

Karmele Igartuak, Euskaltzaindiaren Felipe Arrese saria eskuratu zuenerako, egina

zuen bide bat literaturan, baina batez ere narrazioan saiaturia zen. Ezaguna zen ikasleen artean ipuin kontalari gisara ere, jasoa zuen Debagoieneko euskal prentsaren eremutik iritzi-artikuluak edo idazteko gonbidapena, onartzera ausartu ez bazen ere.

Eta Bergarako Idazle Eskolan hartu zuen erabakimena. Han ikasten hasi orduko, 2006an argitaratu zuen bere lehen narrazioa, *Gara* egunkariko «Mugalari» literatur gehigarrian («Gutuna»). Ipuin hori da 2006an Idazle Eskolako beka irabazi zuena. *Gaur arte* deituriko lanaren lehen hauria da, eta bertan azaltzen da gutun-estiloa jorratzen hasteko arrazoibidea. Gutuneko zaletasun horrek eraman zuen gero genero hau hobeto lantzeko asmoz, Marina Tsvietaieva ezagutu eta itzultzera.



Karmele bere liburua aurkezten Aretxabaletan.



Karmele bere poema batzuk irakurtzen

Bergarako Idazle Eskolari buruz, berriz, honela aitortu zion Felix Ibargutxi kazetariari, bere lehen liburuaren harira egindako elkarrizketan: «Eta norabidea ere han topatu nuen; han hasi nintzenez, igual narrazio gehiago idazten nuen, poesia baino. Eta ausardia eman zidan eskola horrek».

2007an berriro *Gara* egunkariaren «Mugalarri» gehigarrian, «Liburuetan» izeneko narrazioan, bere lanetan ere hain aintzat hartuko duen Marina Tsvietaievarengana jo zuen. *Administrazioa euskaraz* aldizkarian, berriz, 2007an «Agur» deritzan ipuina eman zuen argitara. Amodioaz eta gaixotasunaz ari da, kristalezko ateetan irudikatuz bizitzaren eta norberaren mugak.

## POESIAN: ESTILO BAT FORMA BILA

Hiru poema liburu eman zituen argitara Karmele Igartuak.

Liburuz liburu estiloa berritzen eta tinkotzen joan arren, badira bere poetikan aintzat hartu beharreko hainbat ezaugarri.

### a) Bat horri esateko poesia

Poetak beste bati, irakurleari, zerbait esateko idazten du. Gogoan du «bat» hori, eta gogoan du «bat» horrek ulertzea nahi dela. Gutun idazketatik oso hurbil dago bere poesia, sarri. Batzuetan forma gisara ere erabiltzen du gutunarena. Beste askotan gogoeta bat edo aitorten bat, edo pasadizo bat aletzen du norbaitentzat. Hori dela eta, sarri, hitanoa erabili ohi du poesian, batez ere *Hitzen orbainetan* eta *Denbora enaren hegaletan* liburuetan, baina baita *Itsaso kontra bat* liburuan ere.

Inoiz kontatu ere bai, eta orduan, poesiek narrazio itxura hartzen dute edota egoera baten zertzelada batzuk ematen ditu. Esan ala esan ez ditugun gauzak adierazteko behar du poetak poesia. Hitzak lagun ditu Igartua Bengoak, baina batzuetan baita estalkia ere. Hitz bakoitzarekin esan nahi



duena zehazteko premia lehen liburutik sentitzen da.

**b) Norbere sentipenen adierazpen hutsa gailendu beharra du beste bati esan behar zaionak**

Beste bati esan behar zaiona beste batekin konpartitu behar den espazio eta denbora koordenadatan kokatu ohi du Karmele Igartuak «Mozarten adagioan» (*Hitzak orbainetan*); eta horretarako pertsonalak bezain erreferentziazko izan daitezkeen tokiekiko eta garaiekiko hurbiltasuna erabiltzen du: harpeak, Nevadako lertxun-arbolak, oihanak, itsas labarrak, itsas argiak.

Toki zehatz, jakin eta ezagunak ditu gehienetan, baina ez da falta haietan zentzu kosmiko eta telurikorik (airea, itsasoa...).



Karmele Garazi eta Ekaitz seme-alabekin, 1997an

**c) Poesian esaten dena ikusi egin behar da**

Karmele Igartua oso irakurle ona zen, eta bere idatzien zuzenketa oso loturik zegoen ozenki irakurtzeko prozesuarekin, baina aldi berean, poesia-liburua liburua zen, eta idazle eta liburu bakoitza irakurlearen toki eta denbora bat konpartitzeko eta intimitatea sortzeko espazialki ere pentsatua eta sortua dago. Bazetorkion JosAnton Artzeren poesien espazialtasunetik, Tere Irastortzaren hainbat liburutako definizio eta oharretatik edota Marina Tsvietaievaren aposizio, parentesi eta hitzen muinera iristeko premiatik, baina oso bere-bere zuen modua lortu zuen poema bakoitzaren egikeran. «Bat» horri esateko eta kontatzeko premia eszenifikatu egin zuen, antzerkian ari bailitzan.

Urratsik handiena *Itsaso kontra bat* liburuan eman zuen, bertan oinarrizko ziren kontzeptuak definitzen egin zuen saiakeran. Jauzi hori ez da garrantzizkoa emandako definizioen zehaztasunagatik bakarrik, baita beraien kokapenak, hitz egitearen linealtasuna apurtzen duelako, aldiberekotasun bat ezarriz; aldiberekotasun bat edota esamolde koral bat.

Andereño  
Aretxabaletan.  
Inauterietan  
haurrekin dantzan



Karmele 2000ko hamarkadan

#### d) Poesia gizakien oinarrietara doa kontzeptu bidez

Karmeleren poesia hain pertsonala da non besteok garen-garen horretan hartu behar baikenuen tokia. Oinarrizko sentipen, bi- zipen eta kontzeptuetara zuzenduta dago bere lehen liburutik.

*Hitzak orbainetan* lanean «egon», «gel- ditu», «pausatu», «esan», «fereka» eta «larrua»ren inguruan atondutako kon- zzeptuak ageri dira. *Denbora enaren hega- letan* poema liburuan denbora izan zuen

hizpide (denbora memoriarekin, agurra bere joanera eta etorrera momentuekin harremanetan, eramaten eta ekartzen gai- tuzten denborak). Eta *Itsaso kontra bat* obran mugak eta olatuerak pentsatzean, esentzia eta transzendentzia erabili zituen hizketagai.

Kontzeptuak ez dira abstraktuak, ez doaz orokortzera, zehaztera baizik. Eta horretar- ako, irudiak, irudimena eta iruditeria ditu pentsamenduaren ardatz, berarentzat me- tafora «(hemendik) harantzagokoa» baita.

Eta horrela, lehen liburuan, fereka dai- tekeen mundua da orbain eta tatuaiena. Bigarrenean, enara beltza, sortzeko ere geratzen ez den eta beti ibilian doan enara

beltzaren hegalpea, eta hirugarrenean, hasierak eta amaierak marra batekin bereziak ulertzen ez zituenean, *Itsaso kontraren* bi zentzu kontrajarriak bateratuz, laguntzen digu irudikatzen kontakizun, gutun, edo metafora bidez poesian, laburpenean, egin duen oinarrizko bizipenen bilduma.

### e) Oinarrizkoa ez da berezlea, batuzalea da

Kontraesana ez da kontraizana. Ezberdina ez da bereizgarria. *Hitzak orbainetan* zen bere lehen poema liburuaren izenburua, eta liburuko azken lerroek, berriz, honela zioten: «Poesia da laburpena: izana esanetan / eta batzuetan / orbainak hitzetan».

Bere lehen liburuetatik dakar, itxura batean, kontrako diren bizipenak, bukaerak ekar dezake hasiera berri bat, agur batek agurtu beharra. «Bukaera: erantzunik gabeko galderetan trabatuta geratzea, ala be-teera» utzi du idatzita (*Itsaso kontra bat*), edo «Denbora hartu da denbora eman» (*Denbora enaren begaletan*).

### f) Liburuak behar du bere forma

Karmele Igartuaren poemak ez dira anabasan sartzen liburuan. Kontzeptualizazio horren ulergarritasunari laguntzen diote


liburuko poema bakoitzak eta poemak hurrenkerak. Eta liburuaren osotasun nahiren arabera erabakitzen du baita zein poema hautatu libururako ere. Esate batera, bere lehen liburua argitaratzerako, *Luma berrien eleak* aldizkariaren 4. eta 5. zenbakietan argitaratuak zituen «Gorri urratuan» eta «Kenian». Bi poema hauek ez zituen liburu berrian sartu, baina bai argitaratuak zituen beste batzuk. Are gehiago, «Isilak dio» bihurtu zen *Hitzak orbainetan* liburuko atal baten izenburu ere.

## POESIA LIBURUEZ

### 1. *Hitzak orbainetan*

*Goiena* kazetari, *Diario Vasco* egunkariari edota Euskadi Irrati eta Bizkaia Irratikoei emandako elkarrizketetan Karmele Igartuak azpimarratu zuen besteei esan eta adieraztean datzala liburuaren indarra, alegia, poesia sentimendu pertsonaletatik atera eta besteengan sentimendu horiek eragitean.

Esan eta nola esan du gakoa, baina koska bat haratago jotzen du liburuaren azken atalak, «Libertatea» izenekoak, bertan galderak, galdetzaileak berak bihurtzen



*Hitzak orbainetan*  
poesia-liburua,  
2008



*Denbora enaren hegaletan*  
poesia-liburua,  
2009

baitira mintzagai, bertan galderak ondo hautatzea eta ondo egitea bilakatzen baita pentsamenduaren eta edertasunaren muin. Galdera-erantzun binomioa atzekoz aurrera jartzeko intuizioak eta kemenak goren gradura igotzen dute poesiaren egitekoa, izan ere, ez baitira poemak galdera bati erantzuten diotenak, baizik eta poemetan agertzen diren egoerak eta argibideak galderak sortarazten dizkigutenak.

## 2.- *Denbora enaren hegaletan*

2008an argitaratu zuen Karmele Igartuak bere lehen liburua. 2009ko udan, berriz, Marina Tsvietaieva poeta errusiarraren biografia eta haren *Winloko gutunak* liburua-  
ren itzulpena eman zituen argitara *Egan* aldizkarian.

Denbora zen gai nagusia, beste gai guztien artean. *Hitzak orbainetan* poema liburuan ere bada zuzen eta hartaz gaia tratatzen duen poemarik («Denborak mugatzen du denbora», e.b.). Denborari buruz, «III. Pentsamenduaren poesia egunetan» Durangon (2010-5-6) esan zuen bezala, zientziak, filosofiak.... makina bat delibermendu eta iritzi emana zuten. Berak baina poesia egin nahi zuen denbora sortuz, bere iritzian, sortu, denbora sortu behar duelako artistak, poetak; ahitzen, hondatzen ez den zerbait direlako edertasuna eta poesia, bere iritzian, eta poetaren zeregina enara beltzarena bezala sortzea delako.

Denbora, bizi-denbora, alegia, ez zen Karmele Igartuarentzat lerro zuzena, «plani-

fikatu, egin eta lortu», ekintzek hurrenez hurren osatzen dutena, ez eta itsaso handi bateraino iristen den ibai bateko ur-tantaren bidea. Denboran badira atze-aurreanitz, txorien eta hegaztien joan-etorrietan bezala; badira jauziak eta badira geldialdiak, eta badira pausalekuak eta badira iheslekuak, eta badira ez-lekuak eta ez-denborak eta ez-biziak ere.

Liburu hau idazterakoan eta aurreko liburua argitaratzerako gainera, senarra hila zuen. Karmele Igartua Bengoa, bera, gazte hil bazen ere, ez zen alde zurratik gaixoaldi eta heriotza mina sentitu gabe hil. Aurrena anaia gazteena (1995), gero aita Daniel (2001) eta azkena Rai, senarra, (2008). Baina bere gaixoaldiari ere hasia zen aurre egiten. Aurreko poema liburuan baino askoz areago nabaritzen da hemen heriotzak eta bizitzak soka-dantza berean biltzen gaituztena.

Aurreko liburuak prentsan izan zuen oihartzunaz haratago iritsi zen Karmele Igartua liburu honekin. Bigarren libururako poeta heldu batek egiten zion aurre idazketari.

2008tik aurrera, baina batez ere, 2009an, etengabe aritu zen Karmele Igartua idaz-



*Denbora enaren hegaletan liburuaren aurkezpenean, 2009*

ten. *Nabarra* aldizkarirako kolaborazioak, *Luma berrien eleak*, *Administrazioa euskaraz*, *Hatsaren poesia*, *Egan*, *Beterriko liburua*.... Batez ere, iritziak argitaratu zituen *Nabarran*, narrazioak eta liburu-iruzkinak *Luma Berrien Eleak* aldizkarian.

### ***3.- Itsaso kontra bat***

*Itsaso kontra bat* liburua Karmele Igartua Bengoa hil (2010-8-20) ostean argitaratu zen. Idatzia zuen bere osotasunean eta ia erabat zuzendua zendu zenerako. Ez zuen liburua kaleraturik ikusi, bazekien arren argitaratuko ziotena. Eta 2012ko Espainiako Poesia Sari Nazionalerako hautagaia izango zena jakin gabe hil zen.

Liburu honetan gaixotasunaren aurkako eta bizitzaren aldeko lehia hasiera eta



*Itsaso kontra bat* liburuaren azala, 2011

amaiera kontzeptuek, eta jakintza, pentsamendu eta bizipenei buruzkoek hartzen dute erdigunea. Oraingoan, hori bai, eguneroko zirkunstantzia eta baldintzak argiago agertzen dira, askotan.

Itsasoaren indarra da (edo lehen liburua-  
ren azaleko olatuaren oldarra, akaso), li-  
buruaren erreferente nagusia. Eta tokiek  
ere tokia hartzen dute, poetak, gerorik ez  
ikusteko beldurrean, bera gabe geroan  
ikusiko diren itsas labar, olatu, hondartza,  
bapore eta itsasoei begira sosegu hartuko  
balu bezala.

Tragiko datorren aldi baterako sosegu bila  
erantzunak ere behar dira: gainditzen gai-  
tuzten espazioa, amodioa, edertasuna...  
Eta erantzun horiek mamitzen dira poe-

metan metafora, edota definizio gisara oi-  
narrietan eta partekatzen ditugun presen-  
tziatan transzendentzia bila.

Eta definizio horiek txinparta baten gisara  
agertzen dira orrian, jarraiko irakurgarrita-  
sunari begiradaren baterakotasuna atxikiz.  
Hizkuntzaren linealtasuna eta irudiaren  
bateratasuna, instantearen atxikiezina eta  
txinpartaren indarra ematen ditu liburu  
honetan agertzen den hiztegiak: *hustu, isla,*  
*pirata, aparra, arraina, lur-muturra, marka,*  
*itsas argia* moduko hitz konkretuak dira  
batzuetan, eta beste batzuetan, *metafora,*  
*iruditu, garen-garena, neu, dena, bat...* be-  
zain hitz etereoak, ez huts ez hutsal.



Euskal Idazle Eskolako kideak Tuteran, Nafarroako  
Unibertsitate Publikoan egindako  
ekitaldi batean, 2009



# Eragile baten eraginak: bizi ahala, idatzi eta idatzi ahala, bizi

Aretxabaletako Loramendi elkarteak Karmeleri egindako omenaldia, 2012ko urtarrilean

**K**ar mele Igartua ikas minak eta jakin nahiak mugitzen zuen idazlea izan zen, baina Felix Ibargutxiri esan zionez, Idazle Eskola «erabakigarria izan da, guztiz. Irakurtzen ikasi, Idazle Eskolan egin nuen».

Batez ere, berak idatzi nahi zuenari ondo zetorkion literatura jaso zuela esan ohi zuen. Euskal kultura eta literaturan batez ere JosAnton Artze, Xabier Lete, aipatzen zituen bere elkarrizketetan, baina baita Amaia Lasa edota Arantxa Urretabizkaia-  
ren poesia ere. Arlo horretan, gainera, Pedro Salinas, Luis Cernuda edota Pablo Neruda poetekin batera oso gogoko izan zituen idazle frantziarrak eta ez gutxiago

Rainer Maria Rilkeren *Duinoko Elegiak* eta haren gutuneria. Baina guztien artetik azpimarragarria da Marina Tsvietaievarekiko sentitzen zuen erakarpena.

Elkarrizketatik eta hainbat soslaietatik ondoriozta daitekeenagatik R. M. Rilke, P. Salinas eta T. Irastortza zebilzkien poesian.

Idazteko irakurri eta itzuli egin ohi zuen, eta poesia eta testuak itzultzen ematen zuen bere idazketa-saio asko, eta hala, Tsvietaievaren *Wilnoko gutunak* itzuli ostean, euskaratu zituen Rilke, Ajmatova edota Szymborskaren hainbat poema eta gutun. Idazle indartsuak denak... eta berean ere beste idazle batzuek horixe antzeman dute: maitasunezko indarra (M. J.

euskalpen kluba



Emakume Idazleak  
2011ko martxoa



100 izateko... ez don hamahiru

1. Rufina Agirre
2. Mireia Aizpurua
3. Herminia Aizpurua
4. Uxue Albariz
5. Nerea Alzola
6. Uxue Alzola
7. Anaia Arana
8. Mireia Arribas
9. Nerea Arribas
10. Nerea Arribas
11. Aitzane Arribas
12. Iñaki Arribas
13. Nerea Arribas
14. Nerea Arribas
15. Nerea Arribas
16. Nerea Arribas
17. Nerea Arribas
18. Nerea Arribas
19. Nerea Arribas
20. Nerea Arribas
21. Nerea Arribas
22. Nerea Arribas
23. Nerea Arribas
24. Nerea Arribas
25. Nerea Arribas
26. Nerea Arribas
27. Nerea Arribas
28. Nerea Arribas
29. Nerea Arribas
30. Nerea Arribas
31. Nerea Arribas
32. Nerea Arribas
33. Nerea Arribas
34. Nerea Arribas
35. Nerea Arribas
36. Nerea Arribas
37. Nerea Arribas
38. Nerea Arribas
39. Nerea Arribas
40. Nerea Arribas
41. Nerea Arribas
42. Nerea Arribas
43. Nerea Arribas
44. Nerea Arribas
45. Nerea Arribas
46. Nerea Arribas
47. Nerea Arribas
48. Nerea Arribas
49. Nerea Arribas
50. Nerea Arribas
51. Nerea Arribas
52. Nerea Arribas
53. Nerea Arribas
54. Nerea Arribas
55. Nerea Arribas
56. Nerea Arribas
57. Nerea Arribas
58. Nerea Arribas
59. Nerea Arribas
60. Nerea Arribas
61. Nerea Arribas
62. Nerea Arribas
63. Nerea Arribas
64. Nerea Arribas
65. Nerea Arribas
66. Nerea Arribas
67. Nerea Arribas
68. Nerea Arribas
69. Nerea Arribas
70. Nerea Arribas
71. Nerea Arribas
72. Nerea Arribas
73. Nerea Arribas
74. Nerea Arribas
75. Nerea Arribas
76. Nerea Arribas
77. Nerea Arribas
78. Nerea Arribas
79. Nerea Arribas
80. Nerea Arribas
81. Nerea Arribas
82. Nerea Arribas
83. Nerea Arribas
84. Nerea Arribas
85. Nerea Arribas
86. Nerea Arribas
87. Nerea Arribas
88. Nerea Arribas
89. Nerea Arribas
90. Nerea Arribas
91. Nerea Arribas



Euskal emakume idazleak.  
Euskal PEN Klubaren posterra,  
2011



Solabarrietak), mimosak bezala errotzen asmatzea (C. Valoisek), emetasuna (Itziar Gomezek), heriotzari aurrez aurre begiratu izana (Fito Rodriguezek, J. A. Irigaraik edo Uxue Apaolazak).

Eraginak onartu eta eragin... biak naturaltasun beraz. Horregatixe, ezin esan, inolaz imitatzailea izan denik. Bere bizitza pertsonalaren galbahetik iragazia izan da dena, eta bere esperientzia izan da ore horretako ama-legamia, berak Marina Tsvietaievarentzat aukeratu zuen izenburua da berari aplika dakiokkeen: bizi ahala, idatzi, eta idatzi ahala, bizi.

Aldi berean, Karmele Igartuaren poesia oso denbora gutxian bihurtu da beste batzuentzako eragingarri eta pizgarri. Hala gogoratzen dute, dagoeneko, Ione Gorostartzuk, bere lehen poema-liburuaren harira edo Mikel Iburgurenek *Joan da negua* liburuan. Eta Mikel Etxabururen *Orain ni naiz Txoria* liburuan ageri diren toki ezak eta ordu ezak antzeko zerbait direla iruditu zaigu. Hori bai... bakoitzak bere estiloan, Karmele Igartuak berak aitortu zuen bezala *Denbora enaren hegaletan* liburuan.

*ENAREN artera.*

*Ez naiz sukaldaririk onena*

*baina lau-bost bat plater goxo egiten ditut*

*-neure estiloan-*

*inork inoiz egingo ez dituen bezala.*

*Ez naiz zortzi mila metroko*

*mendi ibiltaria*

*baina badakit gure mendietara igotzen*

*-neure estiloan-*

*enara beltzen artera*

*eta hiru-lau bat tontorretan*

*Marik eta Eatek agurtu naute*

*euren leinukoa bainintzan.*

*Ez naiz irakurlerik itsuena*

*baina bi-hiru bat idazle ezagutu ditut*

*-neure estiloan-*

*esanetan eta izanetan.*

*Ez naiz idazlerik emankorrena*

*baina liburutxo batean islatu dut*

*-neure estiloan-*

*naizenetik apur bat.*

*Eta horregatik guztiagatik ere*

*ez naiz egundoko emakumea, baina*

*-neure estiloan-*

*emakumerik ederrena naiz*

*zure beso artean.*



K. Igartuari Bergarako Idazle Eskolan egin zitzaion omenaldikoa, 2010eko azaroan

## BIZIALDI BAT ITSASO KONTRA BATEN BILA

Askatasuna izan da, ziurrenera, Karmele Igartua Bengoaren pasiorik handiena. Kostatua ahala kostatua askatasuna behar zuen bizitzeko, askatasuna bere baitan, askatasuna familia osatzeko eta hezteko, askatasuna euskaldun eta emakume izateko.

Gauzak egitetik sortzera eman beharreko hurrengo urratsa ere bada poesia, baina bezala parentesi, pausaleku eta itsaso kontra bat ere. Familia izatea bada sortzeari garrantzizkoetako bat, besteen baitan utzitako izatea da beste sorgune molde bat: ekintzetan eta hitzetan. Transzendentziari buruzko hausnarketa bide ere bihurtu zuen bere bizitza, heriotzari bizitzeko gri-

na eta gogoa eta irrikaz erantzunez, baina, aldi berean, gizakiaren eta norbanakoaren neurriaren kontzientzian sosegu hartuz ere.

Orain airezko da Karmele, berak esana utzi zuen bezala, edo ur, materia, gai, ama... inolaz. Ez zegoenerako ere idatzi zuen eta ez zegoenerako ere bizi izan zen... eta eza-gutu dugun batzuk altxor handi bat jaso dugulakoan gaude. Besteontzat... hori dira bere egitasmoak eta bere hitzak.

Orain, jakina da garaikide izango dela beti, hainbeste maite zuen Tsvietaievak zioen bezala «Garaikide izatea norberaren denbora sortzea baita».

Mila esker lan hau osatzen lagundu didaten bere maitte-maittiei.

Egileak eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko eskaini duten informazio eta laguntzazatik, eskerrak eman nahi dizkiete:

- Karmeleren familiari
- Aretxabaletako Udalari
- Rosa Urretari

---

Zuzendaritza: Jerardo Elortza  
Argitaraldia: 1.a, 2013ko abenduan  
Ale-kopurua: 2.300  
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila  
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz  
Argazkilaria: Edorta Sanz  
Argazkiak: Familiak, Aretxabaletako Udalak, Gorka Azkaratek eta lagunek utziak.  
Fotokonposizioa: SACAL • Barratxi, 2 (Pol. Ind. Gamarra-Betoño) - 01013 Vitoria-Gasteiz  
Inprimaketa: SACAL • Barratxi, 2 (Pol. Ind. Gamarra-Betoño) - 01013 Vitoria-Gasteiz  
ISBN: 978-84-457-3330-1 (Lan osoarena)  
978-84-457-3334-9  
L.G.: VI 866/2013



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA